

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek xedatzen dutena betetzeko, herritar guztiei jakinarazten zaie udalbatzak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salari proposatuko diola bake epaile titular eta ordezko karguak betetzeko beharrezkoak diren pertsonakizendatzeko 4 urteko aldirako.

Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, prozeduran parte hartzeko ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

- Adinez nagusia izatea.
- Espainiako naziotasuna izatea.
- Ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. eta 389tik 397ra arteko artikuluetan eta 3/1995 Arautegiaren 23. artikulua).

Interesdunek udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera; horretarako, hogeita hamar egun natural izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1. NANaren fotokopia edo haren baliokidea.
2. Zigor aurrekarien ziurtagiria.
3. Zinpeko aitortpena, honako hauen gainean:
 - a) Ez dela doluzko delituagatik kondenatua izan edo, hala badagokio, birgaitzea lortu duela.
 - b) Ez dagoela prozesaturik edo erruztaturik dolozko delituagatik, edo, hala badagokio, auzi-petua izan den kausan absoluzioa edo artxibatze autoa eman zaiola.
 - c) Eskubide zibil guztien jabe dela.
 - d) Ez dagoela fisiko eta psikikoki ezgaituta epaile eginkizunetarako.
 - e) Ez dagoela ezgaitasun edo bateraezintasun kausaren baten eraginpean, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikuluan eta 389tik 397ra arteko artikuluetan eta 3/1995 Erregelamenduaren 23. artikuluan aurreikusitakoen arteko baten eraginpean, esan nahi da.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2020ko ekainaren 4a

Alkatea
GENTZA ALAMILLO UDAETA